


Hiztegítsoa

Hobeto irakurtzen laguntzeko



| | | |
|---|---|-----|
| abagune parada, egokiera | Ez zen, baina, horretarako abagunerik izan. Luze barik, autobus bat geratu zen te-etxearen parean... | 34 |
| abegi edukazioa, errespetuzko jarrera | ...Afrikako abegi onaren arauai jarraituz bere etxean ostatatu ninduen herriko nagusiaren etxean. | 71 |
| adur patua, zoria | Gure garimpoa agortu egin zen, baina egingo nuke luze barik aldatu dela gure adurra . | 134 |
| aiahuaska indigenen edari bat | ...banan-banan pasatzen ziren euren buruzagi izpiritualaren aurretik, baita eskaintzen zitzaizen aiahuaska edalontzi txikia jaso eta hustu ere. | 61 |
| alargundu senar edo emazte gabe geratu | ...gutziz jabeturik dago, dirudienez, hemendik gutxira alargunduko da. | 15 |
| alde desberdintasuna | ...herrialde berean eta erlijio beraren jarraitzaileen artean hain alde handiak egotea? | 177 |
| aldra multzoa | Makina bat suge txiki eta koloretsu ere agertu zitzaizkidan [...], tarteka ikuskizun ederra osatuz, tarteka munstro- aldra izugarria bilakatuz... | 62 |
| alegiatzko litekeena, irreala | Gero, alegiatzko leku batera iritsita, jende mordoia ikusten hasi nintzen... | 62 |
| altzoan magalean, sabel aldean | Altzoan hartu eta biei laztanak egiten hasi zen. Gero hodeiertzera begiratu zuen eta, iluntzen ari zela igarrita, irribarre enigmatikoa erakutsiz... | 69 |
| amandre amama, amona, amatxi | Amandrea , berriz, jarlekuaren azken muturrean zegoen kokaturik, fardelez inguratuta... | 38 |
| amarru azpikeria, tranpa | ...mespretxuz begiratzen zidaten gizonekin, lapurreta eta amarru ahaleginekin... | 175 |
| amultsu maitakorra, goxoa | ...izuikararen eraginez begiak berriro itxi eta atoan inguratzen ninduten zeremonia kideek irribarrez, amultsu , babesle... | 64 |
| apopilo ostatu hartuta dagoena (<i>huesped</i>) | Arraroa iruditu zitzaidan sasi-ostatu hartan beste apopilorik ez egotea... | 100 |
| aprobetxatu baliatu | ...geltokiko janari-saltzaile zaratatsuei jenero pixka bat erosteko aprobetxatu zuten geldialdia... | 73 |
| arbiuatu mespretxatu, bazter utzi | ...eduki ez zituen umeak hazteari eman zion; guztira hamazazpi, denak ere arbiuatutako umeak... | 142 |
| arraildura arrakala, pitzadura, zartadura | ...gela guztiak hutsik eta zikin zeuden ordurako, luzatuz eta sakonduz zihoazen arrailduraz beterik ageri ziren hormak... | 73 |
| arrastiri arratsaldea | ...aurrean geneukan zuhaitz eskergaren hostoen artetik zipriztinka legez ikus zitezkeen arrastiriko eguzki printzetarantz seinalatuz. | 163 |
| artean oraindik (lehenaldian) | Ume zoragarria zen, izan ere; artean ez zekien hitz egiten, ulertu ezinezko hotsak baino ez zituen ahoskatzen... | 33 |
| artegatasun urduritasuna, ezinegona | ...ozta-ozta ezkuta nezakeen hastear zegoen bilera hartan parte hartzeak eragiten zidan artegatasuna . | 61 |
| astrapala zalaparta, iskanbila, zaratotsa | ... astrapala haren erdian, zenbait poliziak legez kontrako salmenta hura eragozteko ahalegin hutsalak egin zituzten... | 78 |
| atalase sarrera, ataria | Ezta hurrik eman ere; ate ñimiñoaren atalasea zeharkatutakoan... | 167 |
| atoan berehala, arin batean | ...izuikararen eraginez begiak berriro itxi eta atoan inguratzen ninduten zeremonia kideek irribarrez, amultsu, babesle... | 64 |
| atondur prestatu, apailatu | Piztuta dauden egur meta askoren artean, berehala atondur dute eurena... | 193 |
| atxikita itsatsita, lotuta bezala | Orduan suari atxikita legez geratzen zitzaion begirada... | 22 |
| aurretixe baino lehentxoago | ...baina estutasunak gainez egin aurretixe argi bat azaltzen zen beti iluntasunean... | 63 |



| | | |
|---|--|-----|
| baitara barrura, artera | ...haren alderantz hegaz abiatu eta azkenean <i>apurina</i> taldearen baitara itzultzen nintzen. | 63 |
| bakan apurra, urria, eskasa | Izan ere, ostatu ohiak mamu aire bat zeukan, gehien bat gauez, argi bakarra Gabon-arboletan ipintzen direnen antzeko bonbillatxo bakanak zirenean... | 76 |
| balizko posiblea, litzatekeena, hipotetik. | Balizko hurrengo bizitza hobe batek agian? | 50 |
| barik izan beharrean | ...nire helburua laguntzea barik laguntza eskatzea zela jabetu zenean, "lan handia daukat" hotz batez desenkusatu eta alde egin zidan... | 41 |
| begiratoki portxea | ...zerua urdintasuna galtzen hasi zen arte egon ginen hirurok begiratokian . | 164 |
| begitandu iruditu, otu | ...logelako atea itxita aurkitu nuen eta desegokia begitandu zitzaidan barrutik ateratzen zen saxofoi doinu malenkoniatsuak sortzen zuen giroa hondatzea. | 42 |
| behingoz halako batean, azkenean behintz | Hurrengo egunera arteko aldia lehenbailehen igarotzea nahi zuen, xarmarik gabeko hiri hartatik irten eta oihanean barruratzeko, behingoz . | 43 |
| berriketa hizketaldia, solasaldia | ...bizilagunak taldetxoetan bilduz joan ziren, hurrengo orduetan berriketa patxadatsuan jarduteko asmoz. | 71 |
| buruhauste katramila, endredoa, kezka | ...ume haren jaiotzak sorrarazi zizkion arazo eta buruhausteek eragindako frustrazioa. | 34 |
| burusi manta, tapakia | ...eta lurrean jarleku nahi ohe gisa sakabanatutako burusiak pixka bat mugituz gero, makina bat intsektu ateratzen ziren azpitik... | 46 |
| cachaça indigenen edari alkoh., pattarra | ...futbol zelai ilunaz bestaldeko zalaparta, hango tabernetan cachaça -z mozkortu bitartean jokoan ziharduten gizonetzkoek sortzen zutena. | 43 |
| dardara mugimendua | ...nire belarriek aditu zuten gauza bakarra haren zilarrezko orkatilakoen kriskitinen dardarak eragindako tin-tin hotsa izan zen. | 51 |
| desenkusatu aitzakiak jarri, ezina adierazi | ...nire helburua laguntzea barik laguntza eskatzea zela jabetu zenean, "lan handia daukat" hotz batez desenkusatu eta alde egin zidan... | 41 |
| doako dohainik | ...txiro zein txiroagoi eskaintzen zien doako laguntza... | 107 |
| egitasmu plana, proiektua | ...antzeko zerbait gertatu da nire ilusio eta egitasmoe kin. | 84 |
| egotaldi egondako denboratxoa (<i>estancia</i>) | Manali aldean baditugu senideak, eta horrek erraztu eta merketu egingo luke egotaldia . | 130 |
| eguna urratu goiza argitu | ...hezurretaraino melatuta eman nituen hurrengo orduak, hotzikaraz, lo egin nahi eta ezinean, eguna lehenbailehen urratzeko irrikaz... | 56 |
| enigmatiko misteriotsua | Altzoan hartu eta bieie laztanak egiten hasi zen. Gero hodeiertzera begiratu zuen eta, iluntzen ari zela igarrita, irribarre enigmatikoa erakutsiz... | |
| enparauak gainerakoak, besteak | ...aurrerantzeko zeregin nagusia enparau ei laguntzea izango zen. | 142 |
| eragotzi ez utzi, trabatu | ...astrapala haren erdian, zenbait poliziak legez kontrako salmenta hura eragotzeko ahalegin hutsalak egin zituzten... | 78 |
| erpin gailurra, punturik altuena | ...palmondo- zuntze zko teilatu zorrotzaren erpinaren azpian, bufalo baten burezur adarduna ageri zen. | 109 |
| errainu izpia, printza, argi isla | ...ikuspen harrigarri eta deskribagaitzak azaldu zitzaizkidan gogoan. Lehenengo, argi- errainu itsugarriz inguratuta, hegaz egin nuen... | 62 |
| erromes ibiltari erlijiosoa, peregrinoa | ...autobus bat geratu zen te-etxearen parean, Ganga ibaiaren iturburu santurantz erromesez eta zamaz gainezka zihoan autobus zaharra. | 50 |
| errukarri lastima eragiten duena | ...txakur errukarria zen hura, mehe-mehea, begirada tristekoa, hil-hurren zegoena. | 74 |
| eskerga handi-handia, itzela | ...aurrean geneukan zuhaitz eskergaren hostoen artetik zipriztinka legez ikus zitezkeen arrastiriko eguzki printzetarantz seinalatuz. | 163 |



| | | |
|--|---|-----|
| espantuka harrokeriatan | ...kafetegirantz jarraitu nuen. Bidean Provotnik begiratzaillearen gelaxkaren albotik pasatu nintzen eta sartzeko espantuka hasi zitzaidan gizona. | 77 |
| estrata gurdibide | belar eta sastraka artean ia guztiz ostendutako estrata zahar batetik ibiliz | 68 |
| etsia desesperaziozkoa | Piztiaren orroak iratzarri ninduen bat-batean, eta segituan harrapakinaren oihu etsia aditu zen. | 84 |
| ezta hurrik eman ere ezta pentsatu ere, inola ere ez | Ezta hurrik eman ere ; ate ñimiñoaren atalasea zeharkatutakoan... | 167 |
| fereka laztana, ukitu leuna | ... ferekarekin konformatu behar izan nuen, hotzikara sentiarazi eta azala pinportu zidan fereka xumearekin. | 51 |
| fetitxe kultuko objektua, superstizioa | ...guk meskita, kristauek eliza eta animistek fetitxeak . | 169 |
| fosforo pospoloa | Fosforo usaina dago 5013. gelan. | 15 |
| frustrazio itxaropen zapuztua | ...ume haren jaiotzak sorrarazi zizkion arazo eta buruhaustek eragindako frustrazioa . | 35 |
| galtzu gari zurtoin soberakinak, kizkia | Gero galtzupiloa metaren azpian sartu du... | 193 |
| garbikuzi garbalditxoa, garbiketa arina | "Gaur eguraldi ona daukagu, Juan, eguzkitsua" esan diote erizainek goizeroko garbikuzia egitera joan direnean. | 21 |
| garimpeiro langile urre bilatzaile., HAmerik. | ...hurrengo egunean esnatu nintzenerako hiru garimpeiroak lanean ari ziren, urre-bilatzaileentzat ezohikoa zen lan baten... | 89 |
| gauzagaitz betezina | ...bere etorkizun laburreko amets gauzagaitzez gain, bere iraganaldi luzeaz ere mintzatu zitzaidan... | 142 |
| gelaxka gelatxoa edo lekutxoa | ...kafetegirantz jarraitu nuen. Bidean Provotnik begiratzaillearen gelaxkaren albotik pasatu nintzen eta sartzeko espantuka hasi zitzaidan gizona. | 77 |
| gizajo koitadua, gaixoa | "Gizajoa" esaten du hari buruz mintzo denean: "Gizajoak ez du pentsatzen hilko denik"... | 17 |
| gogaikarri jasanezina, aspergarria, astuna | "Gure bizimodua erabat gogaikarria da. Zerk eman ahal digu esperantza?" | 34 |
| gogaikeria asperdura | ...han egon behar izan nuen zazpi egunetan, beroa eta gogaikeria ahal bezala eramanez. | 37 |
| grina gogo bizi-bizia, pasioa | ...betidanik milaka garimpeiro batetik bestera mugiarazi dituen grinak eragindakoa... | 134 |
| haizemaile abenikoa | ...ez zuen ezer esaten eta serio begiratzen zidan haizemaile txiki bati eragin bitartean. | 52 |
| hartakoxe halakoxea, berdin-berdina | geltokiko amandrea ere molde hartakoxea zen, ez zuen zirkinik egiten. | 24 |
| haxix kalamutik, droga psikotropikoa | ... haxixa erre edo pilula lasaigarriak irentsi ondoren, etsipenez mintzatzen zenean suertatu zitzaion bizimoduaren miseriei buruz. | 45 |
| haxixa droga | ...haxixa erre edo pilula lasaigarriak irentsi ondoren, suertatu zitzaion bizimoduaren miseriei buruz tristuraz mintzatzen zenean. | 31 |
| hil-hurren egon hil zorian, laster hiltzeko (<i>agon</i> .) | ...txakur errukarria zen hura, mehe-mehea, begirada tristekoa, hil-hurren zegoena . | 74 |
| hodeiertz zerumuga, horizontea | Altzoan hartu eta biei laztanak egiten hasi zen. Gero hodeiertzera begiratu zuen eta, iluntzen ari zela igarrita, irribarre enigmatikoa erakutsiz... | 69 |
| hordialdi mozkorraldia | ...zeremonia haren giro kilikagarriak, barruko kantuek, kanpoko isiltasunak... nolabaiteko hordialdia sentiarazten zidaten, baina besterik ez. | 62 |
| hunkialdi zirrara, emozioa | ...eszena berberaren aurrean halako hunkialdia sentitzeko... | 163 |




| | | |
|--|---|-----|
| hurreen antza, itxuraz | Hango isolamenduan eroso sentitu zen, hurreen, eta eraikina bere gotorleku bihurtu zuen. | 76 |
| hutsal alferrikakoa, balio gabea | Orain hor dago, urdailak husteko ahalegin hutsalak egiten. | 16 |
| igarri nabaritu, sumatu | Altzoan hartu eta bieci laztanak egiten hasi zen. Gero hodeiertzera begiratu zuen eta, iluntzen ari zela igarrita , irribarre enigmatikoa erakutsiz... | |
| ilusio huts irudipena, lilurakeria | ...baina etxeko egongela txukuna ilusio hutsa zen: [...] haize indartsuak zirrikitu guztietatik hondarra sarrarazi eta zaildu egiten zuen entzumena... | 32 |
| irrika gogo bizia | ...hezurretaraino melatuta eman nituen hurrengo orduak, hotzikaraz, lo egin nahi eta ezinean, eguna lehenbailehen urratzeko irrikaz ... | 56 |
| isolatu bakartu | Jarraian, mutil-lagunarekin haserretu ondoren irla hartan arbuaturik eta isolaturik bizi eta hil zen neska gaztearen historia kontatu zidan. | 69 |
| itaun galdera | Ez nien beti egiaz erantzuten ahots goxoko gizon haren itaunei . | 105 |
| jabetu konturatu, ohartu | ...nire helburua laguntzea barik laguntza eskatzea zela jabetu zenean, "lan handia daukat" hotz batez desenkusatu eta alde egin zidan... | 41 |
| jagon zaindu | Etxea txukundu eta seme-alabak jagotea ? | 50 |
| jakitun egon kontziente izan, jabetuta egon | ...miraririk gertatzen ez bada, luze barik hilko da. — Jakitun dago ? | 180 |
| jaramon egin kasu egin | Egidazu jaramon: ez zaitez inoiz haiekin fidatu, eta erakutsiezu beti indartsuagoa zarela... | 76 |
| jendilaje jendaila, jende txarra | Jendilaje horri ezin zaio batere konfiantzarik eman. | 76 |
| jenero salgaia, janariak-eta | ...geltokiko janari-saltzaile zaratsuei jenero pixka bat erosteko aprobetxatu zuten geldialdia... | 73 |
| kabil Aljeria iparraldeko zonaldea | ...esan zidan Dahmane kabiliarrak elkarrekin eman genuen lehenengo gauean... | 75 |
| kaotiko desordenatua, zentzugabea | ...tarte labur horretan erritmo zoroko salerosketa kaotikoa gauzatzen zen. | 80 |
| karrika kalea | Gune artifizial hartan karrika pare bat baino ez zuen estaltzen asfalto hondatuak... | 45 |
| katu su armetan, kakoa (<i>gatillo</i>) | ...ia seguru nengoen oihuren bat adituko nuela atzetik, gelditzeko aginduren bat, pistolaren katu hotsaz batera beharbada... | 113 |
| kilikadura eszitazioa, zirrara | ...hurbiltzen ikusten nituen bat-bateko ekaitz harrigarriek eragiten zidaten kilikaduraz ... | 171 |
| kilikagarri ernagarria, pizgarria, exzitantea | ...zeremonia haren giro kilikagarriak , barruko kantuek, kanpoko isiltasunak... nolabaiteko hordialdia sentiarazten zidaten, baina besterik ez. | 62 |
| kiribilka birak eginez, espiralean | Makina bat suge txiki eta koloretsu ere agertu zitzaizkidan, elkarren artean eten barik kiribilka , tarteka ikuskizun ederra osatuz... | 62 |
| konpartitu partekatu, erdi bana erabili | ...sasi-sukaldea alboko familiarekin konpartitzen omen zuten. | 168 |
| kriskitin kaskabiloa, kaskabela | ...nire belarriek aditu zuten gauza bakarra haren zilarrezko orkatilakoen kriskitinen dardarak eragindako tin-tin hotsa izan zen. | 51 |
| kus-kus janari arabiarra (bereber) gariz | Sua piztu zuten eta afalordurako kus-kusa egosteko ura berotzen ipini. | 145 |
| labezomorro intsektu zapala (<i>cucaracha</i>) | ...makina bat intsektu ateratzen ziren azpitik, labezomorro lodiak gehienbat. | 46 |
| laurogeitaka laurogeitik gora | Kapabeltza joan zaio bisitan gaixoari. Laurogeitaka urteko agure bat da, abade jubilatua... | 19 |



| | | |
|---|---|-----|
| lauso gandutua, lainotua | ...begirada lausoa te-ontzia berotzen zuten txingar txikietatik aldentzeke. | 35 |
| lied kantu lirikoa, pianoz (germanik.) | Disko-jogailuan lied tristeak ipini zituen eta giroa are goibelagoa bilakatu zen. | 43 |
| likits nazkagarria, lohia | ...sabeleko zauria berriro ireki zaio eta gero eta isurki likits gehiago ateratzen da. | 15 |
| lili lorea | ...zortetik onena opatzeaz gain, lili eder batzuk ere eman zizkidaten. | 177 |
| lumatxa luma txiki biguna (<i>plumón</i>) | ..."elurra zerutik mara-mara jausten den zerbait oso hotza da, txori zurien lumatxaren itxurakoa"... | 172 |
| lur behea, zorua | ...eta lurrean jarleku nahi ohe gisa sakabanatutako burusiak pixka bat mugituz gero, makina bat intsektu ateratzen ziren azpitik... | 46 |
| luze barik denbora asko pasatu baino lehen | ...miraririk gertatzen ez bada, luze barik hilko da. — Jakitun dago? | 180 |
| makina bat hainbat, ugari | Makina bat suge txiki eta koloretsu ere agertu zitzaizkidan [...], tarteka ikuskizun ederra osatuz, tarteka munstro-aldra izugarria bilakatu... | 62 |
| malenkoniatsu tristurazkoa, goibela | ...logelako atea itxita aurkitu nuen eta desegokia begitandu zitzaidan barrutik ateratzen zen saxofoi doinu malenkoniatsuak sortzen zuen giroa hondatzea. | 43 |
| mamorro kokoa, bitxoa, zomorroa | ...zeren barruak jaten ari zaion mamorro gupidagabeak eten barik jarraitzen du lanean, gero eta nabariagoa da. | 16 |
| mandioka tapioka... tuberkulu jangarria | ...haiekin mandioka zuritu eta irina egin pasadizo alaiak entzun bitartean... | 173 |
| melatuta busti-bustirik, blai | ...hezurretaraino melatuta eman nituen hurrengo orduak, hotzikaraz, lo egin nahi eta ezinean, eguna lehenbailehen urratzeko irrikaz... | 56 |
| menturaz deskuiduan, auskalo, jakizu | ...pentsa zitekeen inork ez zuela haien falta igarriko, menturaz atzean geratu eta betiko galduko balira. | 38 |
| mingots mikatza, zapora desatseginekoa | ...itauntzen nekatu zirenean, erantzunak ematen hasi ziren, erantzun mingotsak gehienak, haien bizimoduaren krudela islatzen zutenak. | 42 |
| muzin egin baztertu, errefusatu, uko egin | Batzuetan berrogeita zortzi ordutik gora egoten omen zen gotorlekutzat hartuta zuen egongelatik irten barik [...] farmazia irekitzeko beharrari muzin eginda . | 46 |
| nora ezean jitoan, noragabe dabilena | ...portuaren eremua mugatzen zuen burdina ugertuzko atetzarra atzean utzi eta alboko porturantz abiatu nintzen, nora ezean . | 103 |
| ñimiño txiki-txikia | Ezta hurrik eman ere; ate ñimiñoaren atalasea zeharkatutakoan... | 167 |
| ohi izandakoa | Izan ere, ostatu ohiak mamu aire bat zeukan, gehien bat gauez, argi bakarra Gabon-arboletan ipintzen direnen antzeko bonbillatxo bakanak zirenean... | 76 |
| oinaze sufrimendua | Nahikoa oinaze dauka gogoko saminarekin... | 18 |
| ondoezik gaixorik bezala, pattal | ...ohean etzan nintzen, ondoezik eta larri, eta gau luzea pasatzeko prestatu nintzen. | 100 |
| opa egin desiratu | ...zortetik onena opateaz gain, lili eder batzuk ere eman zizkidaten. | 177 |
| osin putzua, zulo handia lurrean | ...heriotza haren xehetasunak entzun orduko Mauni Babarengana jo nuen aholku eske, osinean murgildu izanagatik eta sentituko beroagatik kezkatuta. | 48 |
| oskarbi zohardia, zeru garbia | Berari ez dio ardura jadanik zelako eguraldia egiten duen, berdin dio oskarbi ala euritsu dagoen... | 8 |
| ostenduta ezkutatuta | ...belar eta sastraka artean ia guztiz ostendutako estrata zahar batetik ibiliz. | 68 |
| ostera ibilalditxoa, buelta | ...hamaika ostera egin ondoren, mendialdeko herri hartako ostatu guztiak [...] pakistandarrez beteta zeudela ohartu nintzen atsekabez. | 99 |



| | | |
|---|---|-----|
| ostu lapurtu, ebatsi | —Zer egin du? Nori ostu dio? —jakin nahi zuen poliziaburu zirudienak. | 104 |
| otzandu mantsotu, apaldu | ...gozatu egiten nuen bizitza luzeak otzandutako gizon haren kontakizunekin... | 172 |
| ozenagotu indartsuago bihurtu | ...halako baten zurrumurru hura ozenagotzen hasi zen eta, bat-batean, txistu luze bat aditzeaz batera, ilunpetatik argi itsugarri bat sortu zen. | 70 |
| ozta-ozta nekez, justu-justu, doi-doi | ... ozta-ozta ezkuta nezakeen hastear zegoen bilera hartan parte hartzeak eragiten zidan artegatasuna. | 61 |
| (oztopatu)an ere badaezpada hori geratuz gero | ...negarrez mundu bien arteko igarotze pozgarria oztopatuan ere , hildakoaren arimak [...] sentituan ere , [...] surtara botatzeko tentaziorik izanean ere . | 195 |
| paratu jarri, ipini | ...ateko kristaletik kanpora begira paratu nintzen, pixka bat errukiturik... | 38 |
| pasadizo jazoera, istoriotxoa, errandoa | ...haiekin mandioka zuritu eta irina egin pasadizo alaiak entzun bitartean... | 173 |
| pinportu garauz edo pikorrez bete azala | ...ferekarekin konformatu behar izan nuen, hotzikara sentiarazi eta azala pinportu zidan fereka xumearekin. | 51 |
| plantak egin itxurak egin, disimulatu | Gelaxkan sartu eta haiekin egon nintzen pixka baten, atsegin plantak eginez . | 79 |
| premiatsu presaka egiteko, urgentziaz | ...esan zidan ostalari zaharrak, premiatsu , logelako atea ireki nionean. | 163 |
| sail arloa, lur eremu bat | ...lanean ari ziren, urre-bilatzailleentzat ezohikoa zen lan baten: tabernaren jabearentzat inguruko sailak garbitzen soldata ziztrin baten truke. | 89 |
| samin tristura, atsekabea | Nahikoa oinaze dauka gogoko saminarekin ... | 18 |
| sargori eguraldi bero itogarria, sapa | Sargoria , euri zaparradak, kaleak putzuz gainezka, arratoiak lurrean hilda... | 103 |
| sari Indiako janzkia, emakumeena | ...nire albotik igarotzean sariaren zeta leunaz egin zidan ferekarekin konformatu behar izan nuen... | 51 |
| sastraka landare eta zuhaixka multzoa | ...belar eta sastraka artean ia guztiz ostendutako estrata zahar batetik ibiliz. | 68 |
| sen instintua, berezko jokabidea | ...baina berak ez du amore eman nahi, eta senak horrela aginduta, zeozer jaten hasi da... | 15 |
| setatsu temati jarrita | Batzuetan bizkortu egiten da eta edozeri buruz eztabaidan jarduten du setatsu ... | 17 |
| sikera behintzat, bederen | Ahaleginak egiten ditu gogoia bizkortzeko, sikera apurtxo bat alaitzeko... | 18 |
| so begirada | ...Mamouren soa are ilunagoa bilakatzen zen azken argiak alde egindakoa... | 34 |
| soilduta ile gabetuta, ile bakan batzuk | Burua ia soilduta dauka... | 193 |
| soin gorputza | ... soin mehar, oker eta zimurtua agerian zeukan agure horditua bat-batean tente ipini zen. | 133 |
| suertatu egokitu, tokatu | ...haxixa erre edo pilula lasaigarriak irentsi ondoren, etsipenez mintzatzen zenean suertatu zitzaion bizimoduaren miseriei buruz. | 45 |
| tantriko espirituala (budismo jatorr.) | ...aurreko astean andre tantriko baten bisita jaso zuten, izpirituak menperatzeko gaitasuna zeukan andre batena. | 109 |
| tentuz jokatu kontuz ibili, zuhurtziaz | ...beste inoiz berarekin kontaktuan jarri nahi baduzu, tentuz jokatu ... | 64 |
| tin-tin hot kanpaitxoan soina | ...nire belarriek aditu zuten gauza bakarra haren zilarrezko orkatilakoen kriskitinen dardarak eragindako tin-tin hotsa izan zen. | 51 |



| | | |
|--|---|-----|
| travel-txeke tiketak | Motxila hartan bidaiara eramandako diru guztia neukan, dolarrak eta travel-txekeak , baita argazki kamera eta bueltarako hegazkin txartela ere. | 52 |
| tutik ere ez esan ezertxo ere ez esan | ...ez zen ausartu begirada lurretik jasotzen; ez zuen tutik ere esan ... | 50 |
| txantaje xantaia, estorsioa | ...horren gisako abisu mordoa zegoen taula hartan, gehienak polizia ustelen txantaje eta lapurreta kasuekin lotuak... | 51 |
| txingar brasa, egur zati gorria | ...begirada lausoa te-ontzia berotzen zuten txingar txikietatik aldentzeke. | 35 |
| ugertu herdoildua, oxidatua | ...portuaren eremua mugatzen zuen burdina ugertuzko atetzarra atzean utzi eta alboko porturantz abiatu nintzen, nora ezean. | 103 |
| usteko izan litekeena, presuntoa | ...jesarririk eman nuen, musikari mulato eskas samar baten zuzeneko kantu malenkoniatsu ustekoak aditzen... | 103 |
| xaman apaiz gisako aztia (Hegoamerik.) | ...tarte luze samarra eman genuen horrela, harik eta xamana zutitu zen arte.... | 61 |
| xarma enkantua, erakargarritasuna | Hurrengo egunera arteko aldia lehenbailehen igarotzea nahi zuen, xarmarik gabeko hiri hartatik irten eta oihanean barruratzeko, behingoz. | 43 |
| xume apala, txikia | ...ferekarekin konformatu behar izan nuen, hotzikara sentiarazi eta azala pinportu zidan fereka xumearekin . | 51 |
| zakar latza, desatsegina | Halako istorioak entzunda askoz hobeto ulertu nuen Dom Pedroren jarrera zakar eta ezkorra. | 42 |
| zalaparta iskanbila, astrapala, harrabotsa | ...futbol zelai ilunaz bestaldeko zalaparta , hango tabernetan <i>cachaça</i> -z mozkortu bitartean jokoan ziharduten gizonetakoek sortzen zutena. | 43 |
| zamaketari portadorea, kargatzailea | Trenari guztiz gelditzen ere utzi gabe, pasaiari batzuek salto egin eta zamaketari bila hasi ziren... | 73 |
| zarpail txarto jantzia, arropa zaharkituz | ...denbora gehiena abadeak eraikitako barrakoi haien inguruan ematen zuten ume zarpail berritsuak, eta galderaz josi ninduten. | 41 |
| zelatari kirika, ezkutuan begira | Denbora luzean egon nintzen nire oasitik zelatari , pertsona haren gogoetak asmatu nahian... | 38 |
| zipriztin txipliztada, ur tantaka | ...aurrean geneukan zuhaitz eskergaren hostoen artetik zipriztinka legez ikus zitezkeen arrastiriko eguzki printzetarantz seinalatuz. | 163 |
| zirkinik ez egin mugimendu txikienik ere ez egin | geltokiko amandrea ere molde hartakoxea zen, ez zuen zirkinik egiten . | 24 |
| zirrikitu bitartea, tartetxoa | ...baina etxeko egongela txukuna ilusio hutsa zen: [...] haize indartsuak zirrikitu guztietatik hondarra sarrarazi eta zaildu egiten zuen entzumena... | 32 |
| ziztrin balio gutxikoa, ezdeusa | ...lanean ari ziren, urre-bilatzaileentzat ezohikoa zen lan baten: tabernaren jabearentzat inguruko sailak garbitzen soldata ziztrin baten truke. | 89 |
| zorne zaurietako likidoa, gatxa | ...jandako apurra sabeleko zauritik atereko zaio zornearekin nahastuta. | 16 |
| zuntz fibra | ...palmondo- zuntzezko teilatu zorrotzaren erpinaren azpian, bufalo baten burezur adarduna ageri zen. | 109 |
| zuritu azala kendu | ...haiekin mandioka zuritu eta irina egin pasadizo alaiak entzun bitartean... | 173 |
| zurrutada tragoa, hurrupa | ... zurrutada bizkor batez hustu nuen botila eta, atera zitzaidan irribarrerik zabalena erakutsiz... | 53 |
| zutoin paldoa, postea | ...hurrengo orduak zain eman nituen zutoin biren artean loturik zegoen hamakan etzanda, umeen jolasei begira... | 43 |